## han-hemen

### Randy Moss Vikings taldeko izarra atxilotu dute, autoarekin polizia bat harrapatu duelako

Futbol amerikarreko ligako izar Randy Moss kartzelan sartu dute, polizia bat harrapatu duelako bere autoarekin. Vikings taldeko izarrak nahita harrapatu omen zuen polizia, zenbait lekukoren arabera. Antza, jokalariak legez kanpoko maniobra egin zuen autoarekin, eta poliziak geratzeko agindu zion. Zuzen-zuzenean joan omen zen poliziarengana, hura harrapatzera.

### Mary eta Kate Ashley Olsen bikiak Australian dira, euren produktuak saltzeko

*Full House* telesailari esker mundu osoan ospetsu egin ziren bikiak, Mary eta Kate Ashley Olsen, arropa eta bestelako produktuak egiten dituen enpresa baten jabeak dira. Egunotan, 16 urteko ahizpak Australian dira, euren produktuak saltzeko kanpaina bati ekiteko. *Two of a kid* filmeko aktoreek mundu osoan dendak dituen enpresaren jabeak dira. Aurten 1.000 milioi dolarreko irabazi ak izango dituzte.



YUN JAI-HYOUNG / AP

## Txinaren eta Hego Korearen arteko harreman 'orekatuak'

Duela hamar urte Txinak eta Hego Koreak euren harreman diplomatikoak martxan jarri zituzten, etenaldi luze baten ostean. Hori ospatzeko, Txinako akrobata talde horrek oreka arrakastaren gakoa dela frogatu zuen.



ANGEL DIAZ / EFE

### Ronaldoren emazte Milene Domingues fitxatu du Rayo Vallecano taldeak

Real Madril taldeak Ronaldo fitxatu zuela eta, ederki harrotu ziren hautsak han eta hemen. Orain haren emazte Milene Domingues da hizpide. Izan ere, Milene fitxatu du Madrilgo beste talde batek, Rayo Vallecanok hain zuzen, emakumeen ligarako.

## hilberriak

gurru






**Koldobike Arrieta Agirrezabalaga**

*Amama Koldo,*
*ematen pasa duzu bizitza*
*ematen bizi izan zara eta*
*azkenik*
*ematen ere hil zara.*
*Musu bat bihotzez*

ZURE BILOBAK:
LUIS ETA JONE, JOSU ETA EDURNE, MAITE, UNAI, AIMAR, ELENE, NEREA, AITOR, JOANES ETA RAMON.

*Zumaian, 2002ko irailaren 27an.*



**Koldobike Arrieta Agirrezabalaga**

ANDREA

**Ramon Telleriaren alarguna**

**– Goian bego –**

***Zumaian hil zen, 2002ko irailaren 26ean, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.***

Haren seme-alabak: Julite eta Xabin Arcelus, Miren Tere eta Jesus Mari Unanue, Ramon, Jone eta Jose Ramon Eizagirre, Itziar eta Rafael Saiz; bilobak: Luis eta Jone, Josu eta Edurne, Maite, Unai, Aimar, Elene, Nerea, Aitor, Joanes eta Ramon; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde, otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaiteztela GAUR OSTIRALA, irailak 27, arratsaldeko ZAZPIETAN, ZUMAIAKO PEDRO DEUNAREN eliz parrokian, egigo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Oharra:** Gorpua Zarauzko Tanatorioan egongo da.

***Zumaian, 2002ko irailaren 27an.***

ESKELAK
Gaueko 9ak arte hartzen dira
(0034) 943 300 222
publi@egunkaria.com



✝

**Maria Dolores Otaegi Otaegi**

**Jesusen Bihotzaren Mirabea**

***Hilaren 17an hil zen Donostian, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.***

**– GOIAN BEGO –**

Senideak: Joxe Mari eta Mª Dolores Urruzola, Liberata eta Tiburtxio Iradi, Antonio eta Pepi Anza, Patxi eta Garbiñe Zalakain, Anjelita Arruti (Telex Otaegiren alarguna), Jokin (La Salletarra), Ana (Jesusen Bihotzaren Mirabea), Joan (Sakramentinoa), Inaxio eta Anastasia Olasagasti; ilobak, lehengusuak, eta gainerako ahaideek.

Lasarte-Oriako Brijidatarren konbentuan bihar larunbata, hilak 28, goizeko 11tan ospatuko den mezara gonbidatzen zaituztegu.

***Lasarte-Orian, 2002ko irailaren 27an.***